



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko urriaren 3a

15. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-23/ITP-00011. Interpelazioa, Gobernuak Foruzaingo-ereduaren arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (3. or.).
- 11-23/ITP-00012. Interpelazioa, genero-indarkerien aurkako borrokaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Irati Jiménez Aragón andreak egin du (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-23/POR-00149. Galdera, ikasleak sexuaren arabera bereizten dituen hezkuntza dela-eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak emandako epaiari buruzkoa. María Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (4. or.).
- 11-23/POR-00150. Galdera, Lizarrako oinarrizko osasun barrutiari buruzkoa. María Teresa Esporrín Las Heras andreak egin du (5. or.).
- 11-23/POR-00151. Galdera, Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoa eratzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (5. or.).
- 11-23/POR-00152. Galdera, elikagaiak alferrik galtzeari buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (6. or.).
- 11-23/POR-00153. Galdera, Nafarroako goi-mailako kirolarien zerrendan sartzeko irizpideei buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (6. or.).
- 11-23/POR-00154. Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen sustapen ekonomikorako arloei buruzko foru legearen aurreproiektuari buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (7. or.).
- 11-23/POR-00155. Galdera, Nafarroako gazteriaren egoerari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (7. or.).
- 11-23/POR-00156. Galdera, aldi berean kontseilari eta enpresa pribatu bateko administratzaile bakar izateari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (8. or.).
- 11-23/POR-00158. Galdera, 2026ra arte aurreikusitako ekoizpen-murrizketak Volkswagen Navarra enpresaren hornitzaile-parkean izanzen duen eraginari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (8. or.).

- 11-23/POR-00159. Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako mediku-eskasiari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (9. or.).
- 11-23/POR-00160. Galdera, hezkuntza itunduari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (9. or.).
- 11-23/POR-00161. Galdera, finkatze funtsen balantzeari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (10. or.).
- 11-23/POR-00162. Galdera, Euroeskualdeko lehendakartzari begira Nafarroak bere buruari ezartzen dizkion helburuei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (10. or.).
- 11-23/POR-00163. Galdera, Atzerritarren Bulegoari buruzkoa.. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (11. or.).
- 11-23/POR-00164. Galdera, Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko jarduera jaitsi izanari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (11. or.).
- 11-23/POR-00167. Galdera, Nafarroako Gobernuak Volkswagen Navarrari buruz egindako adierazpenei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (12. or.).
- 11-23/POR-00168. Galdera, Nafarroako Gobernuak Pirinioetako Planari buruz egindako aurreikuspenei eta Pirinioetako Mahaiaren inguruan dagoen gobernantza-ereduari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (13. or.).
- 11-23/POR-00169. Galdera, Foru Gobernuaren eta haren goi-kargudunen 2022ko bidaia-gastuei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (13. or.).
- 11-23/POR-00170. Galdera, Nafarroako familien erosahaltenaren galerari aurre egiteko neurriei buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (14. or.).
- 11-23/POR-00171. Galdera, Euro 7 Erregelamendua indarrean sartzeko atzerapenari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (14. or.).
- 11-23/POR-00172. Galdera, Volkswagen Navarrarentzako 41.000.000 euroko laguntza mantentzeari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (15. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-23/ITP-00011. Interpelazioa, Gobernuak Foruzaingo-ereduaren arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egindako interpelazioa, Gobernuak Foruzaingo-ereduaren arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak Foruzaingo-ereduaren arloan darabilen politika orokorrari buruzko interpelazioa.

Iruñean, 2023ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Blanca Regúlez Álvarez

11-23/ITP-00012. Interpelazioa, genero-indarkerien aurkako borrokaren arloko politika orokorrari buruzkoa

IRATI JIMÉNEZ ARAGÓN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irati Jiménez Aragón andreak egindako interpelazioa, genero-indarkerien aurkako borrokaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Irati Jiménez Aragónnek, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, genero-indarkerien aurkako borrokaren arloan Nafarroako Gobernuak baliatuko duen politika orokorrari buruzko interpelazioa egin du, Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

Iruñean, 2023ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Irati Jiménez Aragón

F saila:
GALDERAK

11-23/POR-00149. Galdera, ikasleak sexuaren arabera bereizten dituen hezkuntza dela-eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak emandako epaiari buruzkoa

MARÍA INMACULADA JURÍO MACAYA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Inmaculada Jurío Macaya andreak egindako galdera, ikasleak sexuaren arabera bereizten dituen hezkuntza dela-eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak emandako epaiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Inmaculada Jurío Macayak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egin du Irabia-Izaga ikastetxeak aurkeztutako errekurtsua, ikastetxe itunduak Lehen Hezkuntzan hezkuntza mistoa mistoa ematera behartzen zituen Gobernuaren erabakiaren aurkakoa. Hori dela-eta, zer balorazio egiten duzu ikasleak sexuaren arabera bereizten dituen hezkuntzari dagokionez Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak eman duen epaia dela-eta?

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Inmaculada Jurio Macaya

11-23/POR-00150. Galdera, Lizarrako oinarrizko osasun barrutiari buruzkoa

MARÍA TERESA ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Esporrín Las Heras andreak egindako galdera, Lizarrako oinarrizko osasun barrutiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lizarrako Osasun Barrutiko kudeatzaileak dimisioa eman berri du, García Orcoyen ospitalea pediatrarik gabe egon da denbora batez eta Ginekologiako buruak dimisioa eman du, eta Lizarrako osasun etxean bete gabe daude zenbait medikulanpostu. Hori guztia ikusita, honako hau galdetu nahi diogu Fernando Domínguez jaunari: zer egiten duzu etorkizunera begira azaldutako arazo horiek guztiak konpontzeko?

Iruñean, 2023ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

11-23/POR-00151. Galdera, Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoa eratzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoa eratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako ahozko galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dezan:

1. Zertan da Nafarroako "Hondakinen Erakunde Publikoa" plangintza orokorreko mankomunitatearen eraketa, hura sortzea aurreikusita baitago hondakinei buruzko zein toki administrazioei buruzko foru legeetan? Gobernuak zer urrats egiten du plangintza orokorreko mankomunitate hori eratu dadin?

Iruñean, 2023ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-23/POR-00152. Galdera, elikagaiak alferrik galtzeari buruzkoa

DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako galdera, elikagaiak alferrik galtzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Daniel López Córdoba, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak

2023ko urriaren 5eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Joan den irailaren 27an jakin genuen 36.525 tona elikagai bota zirela azken urtean zaborretara. Nahiz eta horrek murrizketa txiki bat ekarri zuen aurreko urtearekin alderatuta, jasangarritasunerako joera dagoen garai honetan, non erresilientziaz edo ekonomia zirkularraz hitz egiten baita gero eta gehiago, eta batez ere erosketa-saskiaren prezioa albisteetan egunero-egunero egon den une batean, edo jantoki sozialekin eta Elikagaien Bankuarekin dagoen erabiltzaile kopuruaz hitz egiten baita, kezkarria da halako kopuruez hitz egitea.

Zer neurri aurreikusi ditu Hondakinen Prebentziorako eta Ekonomia Zirkularrerako Bulegoak zenbaki horiek murrizteko elikagaiei soilik dago-kienez?

Iruñean, 2023ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

11-23/POR-00153. Galdera, Nafarroako goi-mailako kirolarien zerrendan sartzeko irizpideei buruzkoa

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, Nafarroako goi-mailako kirolarien zerrendan sartzeko irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak ahoz erantzun diezaion:

Zer irizpide jarraitu ditu zure departamentuak Amaia Osaba kirolaria Nafarroako goi-mailako kirolarien zerrendan ez sartzeko?

Iruñean, 2023ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Francisco Javier Trigo Oubiña

11-23/POR-00154. Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen sustapen ekonomikorako arloei buruzko foru legearen aurreproiektuari buruzkoa

ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen sustapen ekonomikorako arloei buruzko foru legearen aurreproiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Ana Elizalde Urmeneta andreak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuako Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2019ko apirilaz geroztik dago Nafarroako Foru Komunitatearen sustapen ekonomikorako arloei buruzko foru legearen aurreproiektu bat. UPNren talde parlamentarioan jakin nahi dugu noiz aurkeztuko den lege-proiektua legebiltzarrean, izapidetu eta eztabaidatu dadin.

Iruñean, 2023ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

11-23/POR-00155. Galdera, Nafarroako gazteriaren egoerari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa EcheGARAY jaunak egindako galdera, Nafarroako gazteriaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Ángel Ansa EcheGARAY jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuako Gazteriako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nola baloratzen duzu Nafarroako gazteen egoera, enpleguari eta emantzipazioari dagokienez, eta zer neurri hartuko dituzue haien egoera hobetzeko?

Iruñean, 2023ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa EcheGARAY

11-23/POR-00156. Galdera, aldi berean kontseilari eta enpresa pribatu bateko administratzaile bakar izateari buruzkoa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIAIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egindako galdera, aldi berean kontseilari eta enpresa pribatu bateko administratzaile bakar izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko kontseilari kargua hartu zenuenetik enpresa pribatu bateko administratzaile bakarra eta kargu publikoa izan zara aldi berean, nahiz eta hori berariaz debekatzen duen goi-kargudunen bateraezintasunei buruzko foru legeak. Zergatik?

Iruñean, 2023ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia

11-23/POR-00158. Galdera, 2026ra arte aurreikusitako ekoizpen-murrizketak Volkswagen Navarra enpresaren hornitzaile-parkean izango duen eraginari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, 2026ra arte aurreikusitako ekoizpen-murrizketak Volkswagen Navarra enpresaren hornitzaile-parkean izango duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularraren talde parlamentarioko Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan: Nafarroako Gobernuaren ustez, zer eragin izanen du 2026ra arte aurreikusitako ekoizpen-murrizketak Volkswagen Navarra enpresaren hornitzaile-parkean?

Iruñean, 2023ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-23/POR-00159. Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako mediku-eskasiari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako mediku-eskasiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteko eledun María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egin du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Esan duzu ez dagoela mediku-eskasiarik Oinarrizko Osasun Laguntzan, arazoa antolaketa-koa dela. Nola antolatuko duzu Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntza osasun-zentroetan medikurik falta izan ez dadin?

Iruñean, 2023ko irailaren 27an

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-23/POR-00160. Galdera, hezkuntza itunduari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, hezkuntza itunduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularraren talde parlamentarioko Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan: Nafarroako Gobernuak gure erkidegoan hezkuntza itunduarekin epe ertainean edo luzean amaitzea al darabil gogoan?

Iruñean, 2023ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-23/POR-00161. Galdera, finkatze funtsen balantzeari buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, finkatze funtsen balantzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Sodenak finkatze funtsak abiarazi zituen 2022an, Nafarroako enpresa-sarea ainguratzeko eta hari hazten laguntzeko. Funtsak abiarazi eta urtebetera, Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilari galdetu nahi diogu ea zer balantze egiten duen funts horiei –finkatze funtsei– buruz.

Iruñean, 2023ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-23/POR-00162. Galdera, Euroeskualdeko lehendakaritzari begira Nafarroak bere buruari ezartzen dizkion helburuei buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, Euroeskualdeko lehendakaritzari begira Nafarroak bere buruari ezartzen dizkion helburuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

menduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari Ana Ollo Hualdek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aste honetan bertan jakinarazi da Nafarroako Gobernuak Euroeskualdearen lehendakaritza hartuko duela 2024-2025 aldian; hartara, gure erkidegoak bere protagonismoa areagotuko du, zalan-tzarik gabe, Europar Batasunean.

Hori dela-eta, honako hau galdetu nahi diogu Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari: Nafarroak zer helburu ezartzen dizkio bere buruari Euroeskualdearen lehendakaritza izanen duen aldirako?

Iruñean, 2023ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregela-

11-23/POR-00163. Galdera, Atzerritarren Bulegoari buruzkoa.*MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak egindako galdera, Atzerritarren Bulegoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako María Roncesvalles Solana Aranak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babe-

sean, honako galdera hau egin du, hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Sobera ezagunak dira, batez ere migratzaileen artean, Nafarroan Atzerritarren Bulegoan herritarrei ematen zaien arretan gertatzen diren gabeziak: egoitza saturatua dago, pandemiaren ondoren ez da guztiz berreskuratu arreta presentziala, langile askok kontratu oso prekarioak dituzte, eta handi-handia da langile-defizita, eskaria etengabe hazten ari den arren. Hori dela-eta, ahozko galdera hau aurkezten da: zure departamentuak zer neurri hartuko ditu egoera hori arintzeko eta hobetzeko?

Iruñean, 2023ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: María Roncesvalles Solana Arana

11-23/POR-00164. Galdera, Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko jarduerara jaitsi izanari buruzkoa.*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko jarduera jaitsi izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilari Fernando Dominguez Cunchillos jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Kontuen Ganberaren *Egokia al da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2018tik 2022ra bitarte itxarote-zerrendeia dagokienez egindako kudeaketa?* izeneko txostenean jasotako datuen arabera, nabarmen jaitsi da Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko jarduera. Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dugu: Osasun Departamentuak zer neurri eta zer epetan ezarriko ditu egoera hori konpontzeko?

Iruñean, 2023ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Txomin González Domínguez

11-23/POR-00167. Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Volkswagen Navarrari buruz egindako adierazpenei buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Volkswagen Navarrari buruz egindako adierazpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko hona-

ko galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite Navascués andreak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurreko astean, Nafarroako Volkswagenen ibilgailu-ekoizpeneko plantako zuzendaritzak enpresa-batzordeari jakinarazi zion 400 langile kaleratuko dituztela, 2024ko bigarren hiruhilekotik 2025eko amaierara arte jardueran egingen diren doikuntzak direla medio. Iragarpen hori ikusita, Chivite lehendakariak bere adierazpenetan adierazi zuen Landabengo fabrikari "ondo joanen zaio-la". Halaber, ibilgailu elektrikoranzko trantsizioaren ondoren, Volkswagen Navarraren etorkizuna hobea izanen dela adierazi zuen, eta lantegiaren okupazioa % 100ekoa izanen delako bermeaz ere hitz egin zuen.

Zertan oinarritzen ditu Nafarroako Gobernuko lehendakariak adierazpen horiek?

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-23/POR-00168. Galdera, Nafarroako Gobernuak Pirinioetako Planari buruz egindako aurreikuspenei eta Pirinioetako Mahaiaren inguruan dagoen gobernantza-ereduari buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuak Pirinioetako Planari buruz egindako aurreikuspenei eta Pirinioetako Mahaiaren inguruan dagoen gobernantza-ereduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako Pablo Azcona Molinetek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak urriaren 5eko Osoko Bilkuran –osteguna– erantzun dezan.

Azken 8 urteotan, Pirinioetako gizarte-, politika- eta ekonomia-sareak Nafarroako Parlamentuarekin eta Nafarroako Gobernuarekin egindako lanari esker sortutako sinergietatik abiatuta, lurralde-gobernantzarako plan eta eredu bat sortu da, Geroa Bairentzat lehentasunezkoa dena. Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut: Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen darabil Pirinioetako Planari eta Pirinioetako Mahaiaren inguruan dagoen gobernantza-ereduari buruz?

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-23/POR-00169. Galdera, Foru Gobernuaren eta haren goi-kargudunen 2022ko bidaia-gastuei buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Foru Gobernuaren eta haren goi-kargudunen 2022ko bidaia-gastuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikitako Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan: zure ustez, beharrezkoak eta proportzionatuak izan al dira Foru Gobernuaren eta haren goi-kargudunen 2022ko bidaia-gastuak?

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-23/POR-00170. Galdera, Nafarroako familien erosahaltenaren galerari aurre egiteko neurriei buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako familien erosahaltenaren galerari aurre egiteko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Nastat-Nafarroako Estatistika Institutuak lan kostuari buruz egin duen urteko azken inkestaren arabera, 2,6 puntu jaitsi zen Nafarroako etheen erosahalmena. Aste honetan jakin dugu inflazioak bederatzi hamarren egin duela gora (% 3,5era arte) Espainian. Zer neurri hartu nahi ditu Nafarroako Gobernuak Nafarroako familien erosahaltenaren galera horri aurre egiteko?

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-23/POR-00171. Galdera, Euro 7 Erregelamendua indarrean sartzeko atzerapenari buruzkoa

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Euro 7 Erregelamendua indarrean sartzeko atzerapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2022ko urriaren 5eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Europar Batasuneko estatuek turismo-ibilgai- luen, furgoneten, autobusen eta kamioien emisioak arautzen dituen erregelamendua –Euro 7 izenez ezagunagoa– indarrean sartzeko atzeratze erabakia hartu ondoren: zer ondorio izanen ditu Nafarroarentzat?

Iruñean, 2022ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-23/POR-00172. Galdera, Volkswagen Navarrarentzako 41.000.000 euroko laguntza mantentzeari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Volkswagen Navarrarentzako 41.000.000 euroko laguntza mantentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren ele-dun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran erantzun dezan: Volkswagen Navarrarentzako 41.000.000 euroko laguntza mantenduko al duzu, taldeak bateria-planta egin ezean Landaben enpresaren instalazioetan?

Iruñean, 2022ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

